


Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,1 jaitsi ziren 2014ko abenduan aurreko hilaren aldean

2013ko abenduaren aldean eraikuntza gastuak %1,0 gutxitu ziren

2014ko abenduan, Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %0,1 jaitsi zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasan %-1,0, dugu, Eustaten datuen arabera.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Aurreko hilaren aldean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,1 merketu dira.

Etxegintzako lehengaiak %0,1 garestitu dira abenduan aurreko hilaren aldean; Obra Zibilekoak %1,3 merketu.

Bi azpisektore horien urte arteko bilakaera negatiboa da. Etxegintzako lehengaien kostuak %1,5 merketu ziren, Obra zibilekoak %3,7, aurreko urteko hil beraren aldean.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artean (2014ko abendua 2013koaren aldean) prezio hazkunderik handienak urte artean: Material elektronikoa (%1,0), Metalezko artikulua (%0,9). Prezio jaitsierarik handienak sektoreetako lehengaietan, azken hamabi hiletan: Petrolio-fintzea (%-22,6), Energia elektrikoa eta gasa (%4,8), Ez-metalezko industria (%-3,4).

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2014KO ABENDUA

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m/m-1	m/m-12
GUZTIRA	101,7	-0,1	-1,0
Eraikinak	101,8	0,0	-0,8
Obra zibila	101,3	-1,0	-2,5
LEHENGAI	100,7	-0,1	-1,8
Eraikinak	100,8	0,1	-1,5
Obra zibila	100,0	-1,3	-3,7
LAN-ESKUA	105,4	0,0	1,8

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua